



Usurbilgo Udala

Usurbilgo Udalaren egoitza digitala

Nola sartu egoitza digitalean

Usurbilgo Udalaren egoitza elektronikoa sartu eta tramiteak Internet bidez egiteko, lehen-lehenik, usurbil.eus atarian sartu behar da. Hor, zerbitzu digitalak izeneko atalean sartu, eta egin ditzakeen tramiteen zerrenda ikusiko du erabiltzaileak.

Edozein tramite egiteko, dena den, derrigorrezkoa da B@kQ giltza izatea: sinadura elektronikoa da, tramitea egitera doanaren identitatea ziurtatzeko balio duen tresna.

B@kQ giltza

Zer da?

Pertsona fisikoei zuzendutako identifikazio elektronikoko bitartekoa da, sinadura baimentzeko eta sinatzeko prestatua. Lotuta dago Izenpe entitate ziurtatzaileak emandako ziurtagiri kualifikatu batekin, eta, erabili ahal izateko, hainbat elementu lotzen ditu: erabiltzailearen identifikazioa (NAN/AIZ erabilita), pasahitz bat eta 16 posizioko koordenatu joko bat.

Zertarako balio du?

Usurbilgo Udalarekin zein edozein administrazio publikorekin sarean egin beharreko tramiteak egiteko balio du.

- **Usurbilgo Udalarekin.** *Usurbil.eus* webguneko zerbitzu digitalen atarian eskaintzen diren tramiteak egiteko (sarrera bat egiteko, errolda kontsultatu edo ziurtagiria eskuratzeko, tasak, zergak, ordainagiriak zein isunak ordaintzeko, esaterako).
- **Administrazio publiko guztiekin.** Osakidetzako mediku-txostenak kontsultatzeko, errenta aitortpena aurkezteko, trafikoko puntuen poltsa edo isunak kontsultatzeko... Erakunde bakoitzaren webgunearen bidez egin daitezke.

Non eskura daiteke?

- **Internet bidez.** Izenpek aukera ematen du eskaera Internet bidez egiteko, [bere.webgunearen bitartez](http://bere.webgunearen.bitartez).
- **Usurbilgo udaletxean.** Harreran, astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 14:30era.
- **Kzgunean.** Astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara.
- **Edozein administrazio publikoren egoitzan.**

Txartela egiteagatik ordaindu egin behar da?

Ez, doan da.

Edonork eskura dezake?

16 urtetik gorako pertsona fisikoek soilik eskura dezakete, eta ezinbestekoa izango da posta elektronikoko helbide bat eta sakelako telefono bat adieraztea.



Usurbilgo Udala

Eskatzailearen identifikazioa

Dokumentazioa aurkeztea ezinbestekoa da eskatzailea identifikatu ahal izateko. Honakoak dira aukerak, jatorriaren arabera:

- Espainiako nazionalitatea aitortua dutenak. NAN, pasaporte edo gida baimena.
- Europako Batasuneko beste herrialdeetako nazionalitatea aitortua dutenak. IAZ, EBko herritarren erregistroko ziurtagiria eta sorterriko pasaporte edo NAN, indarrean badago soilik.
- Europako Batasunetik kanpoko nazionalitatea aitortua dutenak. AIZ edo bizileku txartela.

Beste norbaitek eska dezake zure izenean?

Bai, eta honako hauek aurkeztu beharko ditu: eskatzaileak notario aurrean onartutako sinadura eta eskatzailearen NAN edo AIZren kopia batekin.



Usurbilgo Udala

Portal digital del Ayuntamiento de Usurbil

Cómo acceder al portal digital

Para poder acceder al portal digital del Ayuntamiento de Usurbil y realizar los trámites a través de Internet, primero hay que entrar en la página web usurbil.eus. En esa página, hay que darle al botón llamado zerbitzu digitalak (servicios digitales, en castellano): ese es el portal digital del Ayuntamiento de Usurbil, donde el usuario podrá ver la lista de los trámites que puede realizar online.

Aún así, es necesario tener la llave B@kQ para poder hacer cualquier trámite: es la firma electrónica, la cual certifica la identidad del usuario que va a realizar el trámite.

La llave B@kQ

¿Qué es?

Es una herramienta para la identificación digital de las personas físicas, preparado para autorizar la firma y, en ese caso, firmar. Está vinculado con un certificado cualificado desarrollado por la entidad certificadora Izenpe, y una varios elementos para poder utilizarlo: la identificación del usuario (con el DNI/NIE), una contraseña y un juego de coordenadas de 16 posiciones.

¿Para qué sirve?

Sirve para hacer los trámites a través de Internet, tanto los relacionados con el Ayuntamiento de Usurbil como con cualquier otra administración pública.

- **Con el Ayuntamiento de Usurbil.** Para realizar los trámites que se ofrecen en el portal digital de *Usurbil.eus* (para registrar una entrada, para consultar el padrón o solicitar el documento o para pagar las tasas, los impuestos, recibos o multas, por ejemplo).
- **Con las demás administraciones públicas.** Para consultar los dosieres médicos de Osakidetza, para presentar la declaración de la renta, para consultar los puntos acumulados del carné de conducir o las multas, etc. Esos trámites se pueden realizar a través de las webs correspondientes.

¿Dónde obtenerlo?

- **A través de Internet.** Izenpe proporciona la oportunidad de pedirlo a través de Internet, [en su página web](#).
- **En el Ayuntamiento de Usurbil.** En recepción, de lunes a viernes, de 08:00 a 14:30.
- **En el Kzgunne.** De lunes a viernes, de 09:00 a 13:00.
- **En las sedes de todas las administraciones públicas.**

¿Hay que pagar por hacerse la tarjeta?

No, es gratis.



Usurbilgo Udala

¿Puede obtenerlo cualquiera?

La tarjeta está destinada a las personas físicas mayores de 16 años, y es obligatorio facilitar una dirección de correo electrónico y un número de teléfono móvil.

La identificación del solicitante

Presentar la documentación es imprescindible para poder identificar al solicitante. Estas son las opciones para identificarse, según su origen:

- Los que se les otorga la nacionalidad española: DNI, pasaporte o el permiso de conducir.
- Los que se les otorga la nacionalidad de otro país miembro de la Unión Europea: NIE, el certificado del registro de ciudadanos de la Unión Europea y el pasaporte o DNI del país natal, siempre y cuando estén en vigor.
- Los que se les otorga otra nacionalidad fuera de la Unión Europea: NIE o la tarjeta de residencia.

¿Puede otra persona solicitarla en tu nombre?

Sí, y deberá presentar los siguientes documentos: la firma del solicitante aprobado ante notario y una copia del DNI o NIE del solicitante.